

BEREZKO JARDUERAK
LAGUNTZEN PROGRAMAK ETA FUNTSAK
EGITURA FUNTSAK
ESKUALDE GARAPENeko EUROPAKO FUNTSA (EGEF)
5. ARDATZA.- TOKIKO ETA HIRIKO GARAPENA

Neurria: Gizarteratzea

1. programa: Adimen atzerapena duten taldeak laneratzeko azpiegiturak

Laburpena:

Adimen atzerapena duten pertsonentzako lanerako zentroak eraikitzea. Helburua da adimen ezinduak prestatzea, ordaindutako lanpostua izan dezaten enplegurako zentro berezietan edo merkatu irekian.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

<http://web.alava.net/ifbs/minusvalia5.htm>

Neurria: Turismo eta kultura azpiegiturak

1. programa.- Arte Garaikidearen Museoa

Laburpena:

Vitoria-Gasteizko erdigunean arte garaikidearen museo bat eraikitzea. Museoek izaten duten eginkizun orokorraz gain (erakusketa iraunkorrek eta behin-behinekoak, jendearentzako arloak, arlo didaktikoak eta sormena lantzekoak), hiriaren dinamizazioarako elementu itzela izango da, enplegu zuzena eta eragindakoa sortuko du, eta, aldi berean, horrekin harremana duten zenbait sektoretan ekonomia biziberrituko da.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

<http://www.artium.org/Indice.php>

2. programa.- Arabako Lurralde Historikoko turismoa sustatzeko jarduerak

Laburpena:

Kuadrillentzako, udalentsako eta turismo sektoreko bestelako erakundeentzako laguntzen programa da, turismoa sustatzeko jarduerak diruz laguntzeko.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

<http://www.alava.net/economia/promocion6.html>

Neurria: Historia eta Kultura Ondarea Zaintzea

1. programa: Vitoria–Gasteizko Andre Mariaren katedrala zaharberritzea

Laburpena:

Eraikuntzaren ikuspegi hutsetik, proiektuak Vitoria–Gasteizko Andre Maria katedrala eta haren hiri ingurunea erabat sendotzea, zaharberitzea eta birgaitzea du helburu. Hala ere, proiektu orokorrak arkitektura arloko alderdiak ez ezik beste batzuk ere aurreikusi ditu. Katedrala hiriko eraikin adierazgarritzat hartu da eta, hura zaharberitzearen inguruan, herritarren babes mugimendua sortu da. Santa María Katedrala Fundazioak, hain zuzen ere, gauzatzen du babes hori. Aipatutako elkarteak plan zuzentzailea betearazteko eta proiektua sustatzeko ardura du.

Zaharberitze lanak abiapuntutzat hartuta, inguruko espazioaren multzoa berriro definituko da eta katedrala jarduera turistiko eta ekonomikoa sorraraziko duen erakarpen handiko zirkuitu batean sartzea planifikatuko da, eraldatzen doan eraikin bizia dela oinarritzat hartuta.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

<http://www.catedralvitoria.com/>

Neurria: Lan heziketako eta toki garapenerako zentroak

1. programa.- Arabako Lurralde Historikoko lanbide heziketako zentroak hobetzea

Laburpena:

Heziketa zentroyen eta elkarten instalazioak eta hornidura hobetzeko inbertsioak sustatzeko laguntzak dira. Alde batetik, arautu gabeko prestakuntza eta bestetik, Arabako biztanleria aktiboaren enplegarritasuna eta lanbide gaitasuna hobetzea sustatu nahi duen heziketarako laguntzen programa zabalago batean sartzen dira.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Ekonomia Zuzendaritza

Arabako Foru Aldundia

Probintzia plaza, 4

3. solairua

01001 VITORIA-GASTEIZ

Tel.: 945181726

Faxa: 945181764

Posta elektronikoa: ekonomia@alava.net